



“GABONAK ZURETZAT” PROGRAMAK 250 JARDUERATIK GORA ESKAINIKO DITU

Donostia Gazteriak egitaraua diseinatu du hiriko hainbat elkarte, aisialdi talde, Donostia Kultura eta bestelako eragilerekin elkarlanean. Haurrentzako, familientzako eta gazteentzako, besteak beste, hainbat tailer, magia ikuskizun eta antzezlan antolatu dira abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra.

Gabonak zuretzat programa, beste behin ere, Donostiara iritsi da. Aurten, abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra 250 jarduera baino gehiago eskainiko ditu haurrentzat, familientzat eta gazteentzat. Hala, hiritarrek eskaintza zabala izango dute Gabonetan: besteak beste, hainbat tailer, magia ikuskizun edota antzezlan. Donostia Gazteriak egitaraua diseinatu du hiriko hainbat elkarte, aisialdi talde, Donostia Kultura eta bestelako eragilerekin elkarlanean.

Azken batean, kontsumismoari iskin egiten dion kulturaz eta aisiaz disfrutatzeko ekintza mordoa izango dira hiriko hainbat auzotan. Egitaraua bi eskuliburutan bildu da: batek haurrentzako (0-11 urte) eta familientzako jardueren berri ematen du, eta, besteak, gazteentzako direnak jaso ditu (12-30 urte). Horrez gain, www.donostia.eus/gazteria web orrian bilatu daiteke informazioa.

Irudiari dagokionez, gazteen kartela, Markel Blancok, Usandizagako Diseinu Zikloko ikasleak egin du.

Haurrentzako programa

Haurrentzako programak (0-11 urte) jarduera ugari eta anitzak ditu. Hiriko 17 auzotara zabaltzen da eta 230 jarduera inguru eskainiko ditu. Honako hauen programazioa biltzen du: Haurtxokoak, Donostia Kultura, elkarteak, kultur eragileak, Cristina Enea Fundazioa, San Telmo Museoa, Tabakalera, Donostia Festak eta Udal Musika eta Dantza Eskola. Gainera, Donostia Gazteriak sei jarduera antolatu ditu eta Kurasaaleko Gabonetako Haur Parkean gune bat izango du. Aurten, *Gabonak zuretzat* programan Gautena elkarteak parte hartu du ere bai. Hala, abenduaren 31 goizean Haurrentzako Gabon Parkea desgaitasunen bat duten haurrentzat irekiko da bakarrik; beraien beharretara egokitzen den gune bat eskaintzeko.

Gabonak zuretzat programaren bidez aisialdia modu egokian bideratzeko ohiturak sortu nahi dira, ondo pasatzeko eta dibertitzeko era berriak ezagutzeko aukera emanaz. Bestelako balio batzuk ere landu nahi dira, besteak beste, hezkidetza, elkartasuna eta sormenezko aisialdia, eta horretarako hurrengana iritsi nahi da haien inguruko eta hurbileko entitateen bidez.

Hala, gazteenek hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute: mota askotako tailerrak (sukaldaritza, gabonetako apaingarriak, zirkua, etab.); filmen emanaldiak: antzezlanak eta magia ikuskizunak; jolasak; ipuin kontalariak; antzeztutako ibilaldiak edota haurrentzako berbenak. Gainera, bisita bereziak jasoko dituzte. Adibidez, Mari Domingiri Haurtxokoetan euren eskutitzak emateko aukera izango dute; izan ere, Haurtxokoen udal sarean jolasteko eta ondo pasatzeko makina bat ekintza egongo dira.

Donostia Gazteriak zenbait emanaldi berezi antolatu ditu egitarau honen barne: "Trakamatraka" ikuskizuna (abenduak 26, 17:00, San Telmo Museoa); "Mari, Meri eta Lari" antzerkia (abenduak 27, 17:00, Amassorrain ikastetxea); Tor eta Txoborro magoaren "Aztikeriak" (urtarrilak 2, 17:30, Kontadores Gazte Zentroa); Haur berbena "Plaza irrintzika" (urtarrilak 2, 17:00, San Telmo Museoa); Nai imajinazioak antzerkia eta malabareak "Tik tak" (urtarrilak 2, 17:00, Amara Berri-Urbieta ikastetxea); Tomaxen abenturaren "Azken balea" antzerkia (urtarrilak 2, 17:00, Ibaetako frontoia).

Horrez gain, San Silvestre lasterketa egongo da txikientzat (6-15 urte). Amara Kirol elkarteak antolatu du, Donostia Gazteriaren laguntzarekin. Lasterketa abenduaren 29an egongo da goizeko 11:00etan eta www.sansilvestredonostiarra.com web orrian izena eman beharko da.

San Telmo Museoan ere haurrentzako eskaintza berezia egongo da: sormen tailerrak, alegia.

Aipatu beharra dago, tokian tokiko elkarte eta eragileen parte hartzeak, asko erraztu diola Donostia Gazteriari eskaintza hori osatzeko lana. Besteak beste, Antxeta Ttan Ttakun Egian; Roteta Berri Haurtxokoa Altzan; Añogatxikitarrak auzo elkarte Añorgan; Undermount Igeldon; Ibaetan ILAE auzo elkarte; Intxhaurgune Intxaurrondon; Grosen Club de Arte Catalina de Erauso; eta, Amaran Mamur Aisialdi Taldea.

Gazteen egitaraua

Gaztelekuetan (12-17 urte) izango den ohiko egitarauaz gain, gazteentzako eskaintza berezia ere prestatu da. Aipatzekoa da "Esne Beltza" taldeak abenduaren 27an eskainiko duen kontzertua Intxaurrondo Kultur Etxean. 18:00etan izango da, eta 12 eta 17 urte bitartekoentzat espreski antolatu da. Gonbidapenak Donostia Gazteriako bulegoetan (astelehenetik ostiralera, 09:00-14:00) jaso daitezke eta Donostiako Gaztelekuetan.

Era berean, Donostia Gazteriak doako tailer hauek antolatu ditu: parkour, "Gabon Gazte Txef" eta aerounba. Izen ematea irekia egongo da abenduaren 10etik aurrera www.donostia.eus/gazteria web orrian.

- Parkour tailerra: abenduak 26-27, 11:30-13:00, 12-17 urte, Rodileko frontoia(Gros).



- Gabon Gazte Txef:
 - urtarrilak 2, 10:30-13.30, 14-16 urte, Bidebietako Oinarrizko Lanbide Heziketa.
 - urtarrilak 3, 10.30-13:30, 15-17 urte, Bidebietako Oinarrizko Lanbide Heziketa.
- Aerorunba tailerra: urtarrilak 3, 17:30-19:00, 16-25 urte, Kontadores Gazte Zentroa.

Gainera, egitaraua honako erakunde eta elkarteen ekintzekin osatu da: Tabakalera (Hiria hackeatu), Aratz Gia Taldea (*street art tailerra*, gabonetako postalen tailerra, antzerki tailerra, eta mahai jolasak), Valhalla (bolumetria tailerra, mahai jolasak), Urban 13 Kolektiboa (oilar gudurako filtroen eta oilar gudua tailerrak).